| | | | |
|---|---|---|---|
| IKASTETXEA | IESO Ochagavia | | |
| IZENBURUA | Aita errukitsuaren eta bi semeen parabola | MAILA | 1º ESO / DBH 1 |
| IRAKASLEA | Beñat Goñi | IKASGAIA | Erlijioa |

1: jarraia (11narraziozkoa, 12deskribapenezkoa, 13azalpenezkoa, 14argudiozkoaa, 15instrukziozkoa). 2: etena. 3: mistoa.

# DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.



## Aita errukitsuaren eta bi semeen parabola

*11 Gainera, esan zien: «Gizon batek bi seme zituen. 12 Gazteenak esan zion aitari: "Aita,*
*emadazu dagokidan seniparteá". Eta aitak ondasunak banatu zizkien. 13 «Handik egun*
*gutxira, seme gazteenak, zituen guztiak bildurik, urrutiko herrialde batera alde egin zuen*
*eta han, galdukerian biziz, ondasun guztiak jan. 14 Dena xahutu zuenean, gosete*
*ikaragarria gertatu zen inguru hartan eta estu aurkitzen hasi zen. 15 Orduan, herriald*
*hartako gizon batenganaj joan zen morroi, eta hark bere sailetara bidali zuen txerrizain 16*
*Txerriek jaten zuten ezkurrez asetzeko gogoa ematen zion, ez baitzion inork jaten ematen.*
*17 Orduan, pentsatzen jarririk, bere baitan esan zuen: "Zenbat langile gure aitaren etean nah*
*adina ogi eta gehiago dutela, eta ni hemen goseak hiltzen! 18 Jaiki aitarenganaj joan eta*
*esango diot: Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure kontra. 19 Ez dut gehiago seme-*
*izenik merezi. Har nazazu zeure langileetako bat bezala". 20 «Jaiki eta aitaren etxera abiatu*
*zen. Oraindik urruti zegoela, ikusi zuen aitak eta errukitu egin zen; eta, lasterka joanik,*
*besarkatu eta musuka hasi zitzaion. 21 Semeak esan zion: "Aita, bekatu egin dut Jainkoare*
*eta zure kontra. Ez dut gehiago zure seme-izenik merezi... ". 22 Aitak, ordea, esan zien*
*morroiei: "Ekarri bizkor jantzirik onena eta jantziozue, ipiniozue eraztuna eta jantz*
*oinetakoak, egin dezagun festa-otordua, 24 zeren seme hau hilda bainuen eta piztu egin*
*zait, galdua nuen eta aurkitu egin dut". Eta festa hasi zuten. 25 «Seme zaharrena soroan*
*zen. Etxerakoan, hurbildu ahala, soinua eta dantzak sumatu zituen. 26 Eta, morroi bat*
*deiturik, zer gertatzen zen galdetu zion. 27 Hark erantzun: "Zure anaia etorri da eta zeko*
*gizendua hiltzeko agindu du zuen aitak, semea onik bereganatu duelako". 28 Bizik*
*haserretu zen anaia eta ez zuen sartu nahi. Atera zen aita eta erregu ka hasi zitzaion. 29*
*Baina hark erantzun zion aitari: "Hainbeste urte da zure agindu bat ere sekula huts egin*
*gabe zerbitzatzen zaitudala, eta ez didazu egundaino antxume bat ere eman, lagunekin*
*festa egiteko; 30 eta, horko zure seme hori, zure ondasunak emagaldu ekin jan dituen hori,*
*etorri dela eta, zekor gizendua hil duzu". 31 Aitak erantzun zion: "Seme, zu beti nireki*
*zaude, eta nire guztia zeurea duzu! 32 Baina egoki zen poztu eta festa egitea, zure anaia*
*hau hilda baikenuen eta piztu egin zaigu, galdua genuen eta aurkitu egin dugu!"»*

*Lk 15,11-32*



## Parábola del padre misericordioso y los dos hijos.

*[11]Añadió: ---Un hombre tenía dos hijos.[12]El menor dijo al padre: Padre, dame la parte*
*de la fortuna que me corresponde. Él les repartió los bienes.[13]A los pocos días, el hijo*
*menor reunió todo y emigró a un país lejano, donde derrochó su fortuna viviendo como un*
*libertino.[14]Cuando gastó todo, sobrevino una carestía grave en aquel país, y empezó a*
*pasar necesidad.[15]Fue y se puso al servicio de un hacendado del país, el cual lo envió a*
*sus campos a cuidar cerdos.[16]Deseaba llenarse el estómago de las bellotas que comían*
*los cerdos, pero nadie se las daba.[17]Entonces recapacitando pensó: ---A cuántos*
*jornaleros de mi padre les sobra el pan mientras yo me muero de hambre.[18]Me pondré*
*en camino a casa de mi padre y le diré: He pecado contra Dios y te he ofendido;[19]ya no*
*merezco llamarme hijo tuyo. Trátame como a uno de tus jornaleros.[20]Y se puso en*
*camino a casa de su padre. Estaba aún distante cuando su padre lo divisó y se enterneció.*
*Corriendo, se le echó al cuello y le besó.[21]El hijo le dijo: ---Padre, he pecado contra Dios*
*y te he ofendido, ya no merezco llamarme hijo tuyo.[22]Pero el padre dijo a sus criados: ---*
*Enseguida, traed el mejor vestido y vestidlo; ponedle un anillo en el dedo y sandalias en los*
*pies.[23]Traed el ternero cebado y matadlo. Celebremos un banquete.[24]Porque este hijo*
*mío estaba muerto y ha revivido, se había perdido y ha sido encontrado. Y empezaron la*
*fiesta.[25]El hijo mayor estaba en el campo. Cuando se acercaba a casa, oyó música y*
*danzas[26]y llamó a uno de los criados para informarse de lo que pasaba.[27]Le contestó: -*
*--Es que ha regresado tu hermano y tu padre ha matado el ternero cebado, porque lo ha*
*recobrado sano y salvo.[28]Irritado, se negaba a entrar. Su padre salió a rogarle que*
*entrara.[29]Pero él respondió a su padre: ---Mira, tantos años llevo sirviéndote, sin*
*desobedecer una orden tuya, y nunca me has dado un cabrito para comérmelo con mis*
*amigos.[30]Pero, cuando ha llegado ese hijo tuyo, que ha gastado tu fortuna con*
*prostitutas, has matado para él el ternero cebado.[31]Le contestó: ---Hijo, tú estás siempre*
*conmigo y todo lo mío es tuyo.[32]Había que hacer fiesta porque este hermano tuyo estaba*
*muerto y ha revivido, se había perdido y ha sido encontrado.*

*Lc 15,11-32*

| JATORRIA | |
|---|---|
| EGILEA | Moldaketa: Beñat<br>(Rembrandt Harmenszoon van Rijn koadroa eta Lukasen ebanjelioa erabilita) |
| IZENBURUA | Aita errukitsuaren eta bi semeen parabola |
| ARGITALETXEA/Webgunea | (Koadroa San Petersburgoko Hermitage Museoan dago eta testua Lk 15,11-32) |
| URTEA | 2010 (Koadroa 1669 eta Lk ebanjelioa 70-80 urtea gutxi gorabehera) |
| ORRIALDEA (K) | - |
| ISBN | - |
| **TESTU-MOTA** | |
| OINARRIA | Inprimakia |
| FORMATOA | Mistoa |
| MOTA | Narrazioa |
| ERABILERA | Pribatua |

| JARDUERAK |
|---|
| **1. INFORMAZIOA BILATU EDO BERRESKURATU** |
| |
| **1.1 Galdera** |
| Zenbat pertsona agertzen dira irakurri dugun testuan? |
| 1.1 Erantzuna |
| Aita, bi seme, txerri zaintzailea, langileak eta morroiak |
| 1.1 OHARRAK |
| |
| |
| **1.2 Galdera** |
| Esan egia edo gezurra den:<br>a.- Semeak Aitarentzako oparietan xahutu zuen senipartea.<br>b.- Seme gazteenak, galdukerian biziz, senipartea xahutu zuen.<br>d.- Senipartea semeak aitari kendu zion, berari zegokiolako.<br>e.- Seme gazteena etxera itzuli zenean, xahutu zuena lanaren bidez berreskuratu zuen. |
| 1.2 Erantzuna |
| **A. Gezurra B. Egia D. Gezurra E. Gezurra.** |
| 1.2 OHARRAK |
| |
| **2. ULERMEN OROKORRA** |
| |
| **2.1 Galdera** |
| **Labur azaldu zein den parabola honen esanahia.** |
| 2.1 Erantzuna |

Kristauen Jainkoak aita honen jarrera dauka. Maitasunez gerizatzen gaitu, gure iragana kontutan hartu gabe.

2.1 OHARRAK

**2.2 Galdera**

Azaldu ezazu zein den seme bakoitzaren jarrera.

2.2 Erantzuna

Seme gazteena berari dagokion senipartea hartu eta xahutu ondoren, behartuta, itzultzen da.
Seme helduena etxean egon da beti eta aitaren jarrera ikusirik, bere anaia itzultzean, kexati agertzen zaigu.

2.2 OHARRAK

## 3. INTERPRETAZIOA- INFERENTZIAK

**3.1 Galdera**

Zer erlazio daukate testuak eta Rembrandten irudiak?

3.1 Erantzuna

Rembrandten koadroan seme galduaren itzulera irudikatzen da.

3.1 OHARRAK

**3.2 Galdera**

Testuak dioena kontuan hartuta, nolakoa da anaia zaharrena? Zure erantzuna arrazoitu.

3.2 Erantzuna

- Leiala
- Bekaiztia

3.2 OHARRAK

## 4. EDUKIAREN GAINEKO HAUSNARKETA EDOTA BALORAZIOA

**4.1 Galdera**

Arrazoitu gaur egun ea posible den parabolan agertzen den aitaren jarrera izatea.

4.1 Erantzuna

Bai, posible da. Historikoki hainbat pertsonarengan eman den jarrera aldaketan ikus daitekeelako (Agustín deuna, Asisko Frantzisko deuna, Loiolako Ignazio deuna, Leliseko Kamilo deuna).

4.1 OHARRAK

**4.2 Galdera**

**Bi semeen jarreratik, arrazoitu ezazu zein iruditzen zaizun egokiena**

4.2 Erantzuna

| |
|---|
| Seme gazteenak bere askatasuna erabili du; baina ez da arduratsua izan bere askatasunarekin, ondorio latzak izan dituelako (gose zen, lan neketsua eta duintasun gabekoak….). Orduan, behartuta (bere askatasuna erabili gabe), etxera bueltatzen da buru makur. Konturatu da bere askatasuna gaizki erabili zuela eta bekatu egin zuela onartu du.<br><br>Seme helduena arduratsua da, lanean aritu da jo eta ke, beti aitaren ondoan. Seme gazteena etorri denean justiziari heltzen dio, aitaren jarrera salatzeko. Bere erraietan ez dago lekurik akatsentzat. |
| 4.2 OHARRAK |
| |
| **4.3 Galdera** |
| Arrazoitu zer erlazio daukan parabola honek Kristauen Jainkoarekin |
| 4.3 Erantzuna |
| Parabola honetan agertzen dena Kristauen Jainkoaren irudi bat da. Jainkoa nolakoa den adierazten duen irudi bat da. |
| 4.3 OHARRAK |
| |
| **5. FORMAREN GAINEKO HAUSNARKETA EDOTA EBALUAZIOA** |
| |
| **5.1 Galdera** |
| **Zer esan nahi du Lk 11,15-32?** |
| 5.1 Erantzuna |
| Lukasen ebanjelioan dagoela 11. kapituluan, 15-32 pasartean. |
| 5.1 OHARRAK |
| |
| **5.2 Galdera** |
| **Zer esan nahi dute testuan dauden zenbakiek?** |
| 5.2 Erantzuna |
| Pasartearen zenbakiak dira. Kapitulu baten azpiko pasarteak dira. |
| 5.2 OHARRAK |
| |